

Marina Subirats. Berdintasuna desafio



Genero berdintasunaz, hezkuntzaz eta klase gizarteaz hamar liburu baino gehiago argitaratu ditu Marina Subirats (1943, Bartzelona) soziologoak. Berdintasunaren alde erakunde politikoetatik egindako lanagatik ASPÀSIA saria irabazi zuen iaz. Espainiako Estatuko Emakumearen Institutuko zuzendaria izan zen 1993tik 1996ra, eta Bartzelonako Udaleko Hezkuntza sailburua 1999tik 2006ra. 68ko Maiatza Parisen eman ondoren ibilbide oparoa egin du konpromisoaren bueltan.

“Elizak estutu du hezkuntzan boterea izateko eta Estatuak ahalbidetu du”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÀS

Jakinguraz

“60ko hamarkadan hasi nintzen unibertsitatean. Noski, testuingurua ez zen oraingoa. Gogoratzen dut zientziak maite nituela, baina garai hartan zaila zen emakume batentzat gizonezkoei aitortzen zitzaizkien ikasketetan murgiltzea. Gainera, familian ere lehenbiziko emakumea izan nintzen unibertsitatara joaten. Beraz hesi bikoitza nuen: klasearena eta generoarena. Jakin-min handiko emakumea izan naiz betidanik, eta denetarik probatu nahi izan dut. Baina ziur naiz zientzien bidetik jo izango banu orain damu izango nintzela”.

Filosofia eta letrak ikasi ondoren Parisera joan zinen soziologian espezializatzeraz. 68ko Maiatza bizi izan zenuen. Eraginik izan al du zure ibilbidean?

Noski. Espainian frankismoaren gogortasuna sufritzen genuen garai hartan. Dena zegoen debekatuta eta dena zen gaizpide. Ez zegoen ez iritzi ezta politika askatasunik ere. Beraz, testuinguru hori utzi eta Parisen bizitzea aurkikuntza itzela izan zen. Askatasun eta ausardiaren eztanda izan zen hura, eta Espainia zenarekin alderatuta, dena zen posible han. Zalantzarik gabe, bizipen hark baldintzatu zuen nire ibilbidea, gerora soziologo gisa egingo nuen, Parisko konpromisoekin lotuta egon da.

Antzekotasunik badago 68ko Maiatzaren eta M15en artean?

Testuinguruak antzekoak dira: askatasunaren bila, funtzionatzen ez zuten eta zaharkituta zeuden sistemak ezabatzea zen bi mugimenduen erronka. Arima bera partekatzen zuten. Ezberdintasunik handiena da gaur egungo gazteek

ustelkeriaren kontra ere borrokatu behar dutela, eta garai hartan ez zegoen, edo ez zen azaltzen, behintzat.

1970ean itzuli zinen Paristik. Feminismoa indartzen hasia zen orduan.

Bai, eta aktiboki parte hartu nuen Katalunian. Baina konturatu ginen emakumeon inguruan ezer gutxi genekielako, eta gure eskubideen alde borrokatzeko ezinbestekoa zen lanari serio ekitea. Ordurako hezkuntzaren soziologian murgildurik nengoen eta ikusi nuen emakumeen egoera aztertzeko baliabide interesgarria izan zitekeela.

Esperientzia hark eraman zintuen Emakumeen Institutuaren zuzendari izatera.

Erakundea 1983an sortu zuten eta garai hartan ez zegoen jende gehiegi alor horretan lanean. Madrilgo Complutenseko Hezkuntza Zientzien Institutuak gonbidatu ninduen hitzaldi batean parte hartzera, eta horren harira, Madrilgo Emakumeen Institutuaren lehen zuzendariak proposatu ninduen sortu berri zuten aholku



lantaldean parte hartzeko. Ministerio bakoitzeko zuzendari guztiak biltzen ziren han, hainbat aditurekin batera, nahiz eta aditutik ezer gutxi genuen... Tira, helburua zen abiatuko ziren politiken inguruan eztabaidatzea. Lau edo bost urtez parte hartu nuen, eta 1993an bertan izandako eskarmentuagatik proposatu zidaten Institutuaren zuzendaritza.

Bi hamarkada luze pasa dira, baina berdintasunaren borrokan lan anitz dago egiteke oraindik. Zenbateraino aldatu da egoera?

Erakundeak atzeraka joan dira. 1996an kargua utzi nuenean Madrilgo Emakumeen Institutua indartsu zegoen. Gauza asko lortu genituen, besteak beste, Nazio Batuen Pekingo Biltzarrean Europar Batasuneko eledunak izan ginen. Gai-nontzeko herrialdeak harrituta zeuden Espainiak frankismoaren ondotik egin zuen biraketarekin. Baina gero PP iritsi zen boterera eta Emakumeen Institutua beherantz joan zen. Ez da harritzekoa aste honetan erakunde horretako zuzendariak egin dituen adierazpenak

entzutea. Lotsagarriak dira eta bere dimisioa eskatu dute.

Erakundeen baitan lan egin duzu zuk. Ezinbestekoak al dira?

Gauzak lortu daitezke borrokatzen den edozein tokitik, baina herrialdeek aurrera egin dezaten ezinbestekoa da biztanleria eta erakundeak elkarrekin joatea. Biztanleak eragiten du bultzada eta erakundeek bermatzen dute. Bi eragile hauetakoren batek kale egiten badu, ez dago ezer egiterik.

Solastu gaitezen hezkuntzaz. Zein iritzi duzu LOMCE legeaz?

1970eko hezkuntza legea baino atzerakoiagoa da. Frankismora eramaten gaitu eta erabat diskriminatzailea da. Ikasgela bateko hoberenak goraipatu eta hain onak ez direnak baztertzen ditu. Litekeena da haur batek 10 urterekin ikasteko gogorik ez izan eta ondoren, 15 edo 16 betetzean, ikasle bikaina izatea. Atzerakoa da oso eta horregatik eskatu dute alderdi politiko guztiek hura aldatzeko, PPK salbu.

Lege honek ahalbidetzen du diru publikoak jasotzen duten eskolek ikasgelak bereiztea neska eta mutilen artean.

Elizak estutu du hezkuntzan boterea izateko eta Estatuak ahalbidetu du. Zazpi urtez lanean aritu naiz Estatuako Hezkuntza Kontseiluan lan egiten eta ikusi dut elizak bilatzen duela eskola publikoak neska eta mutilen artean bereiztua izatea. Zorionez hau ezinezkoa da. Asmatu dute bereizketa onuragarria dela haurren garapenerako, eta hobe lan egitendutela... Baina zientifikoki ezin da halakorik egiaztatua.

Uste duzu hezkuntzak demokraziaren unerik gogorrena bizi duela?

Ez. Tira, legearen ikuspegitik bai, baina egia da gizartearen erantzun oso interesgarria egon dela. Batez ere Katalunian, hemendik kanpo ez dut hainbeste nabaritu. Ez nuke jakingo esaten Euskal Herrian egon denik. Eskola askok ikusi dute metodologia aldatu behar dutela eta bermatu dute. Arazo askorekin, legea kortse baten modukoa baita, baina behar denean ez dute betetzen. ■